LIZARDI

OLERKARIA

LAUAXETA

Idatzi zigun guzian oleſkari sakon eta mamitsua agertu zitzaigun Lizardi, baña aren bizitza olerki edeſ-edeſ baten kidekoa zan. Olerkiak egin diſuzanaren gogoa bezain aztertugaſirik eztegu. Lenengo mailan ezaſi beaſ degu arimaren edeſtasuna, arima edeſa ezdutenak gauza oroen ilularik ez lezakelako atzaldu, itz me ta neurtuak bide-aſen.

Olertia sentitzen bañon len ura bizi-izaten ikasi dezagun, geronek bizi-izan eztegunik, ezin esan dezakegu txukunki. Elertilari trebeak baño lenago gizon onak nai diſugu, ontasuna utsik baita elertia. Nork beraren gogoa edeſez ezpadu janzten, ¿azalekiko ikuskaſiak nola egingo diote sistada edo ziſara?

Gure inguruz diran izaki oro edeſ sortu ziran Jainkoaren laztanez aren begiak unkitzen dutena zoragaſia delako. Zeruko ats samuſak zaintzen diſu ezilkoſ izaki guziak, ustelkoſak diran aſen.

San Juan de la Cruz'en itzak deika ditut:

"...y yéndolos mirando
con sola su figura
vestidos los dejó de su hermosura."

Ludiko gauzak edeſak izaki, oek kopiatzeko arimak ere edeſak izan bear du. ¿Loi den ispiluak nola erakutsiko digu edeſtasunaren antza? Gure arima ispilua baño eztegu geuregan antzeztututeko gauza orok egiña. Beraz, garbi bego.

Eta neri onek atsegin Lizardi'gan. Aren gogoa baizan garbia. Oſengatikan azaleko diran gauza guziak, neuſi osoan, maspildu edo lausotu-gabe, egiñak diran bezelaxe kopiatzen zitun. Ludi edo mundu beſi bat agertu bai dizkigutenok, edeſagoa izanen delakoan, txoro baiſira. Gaur eguneko lidia, Jainkoaren eskutik irten zan egiſekoa bezain beſi degu, bañon begi to[illegible]ak ezdituztenak ezin ikusi lezake. [illegible]asuna kopiatzeko begiak bear, itsu diran oleſkariak, amets tartean diraden ludiak bila dabilzki ta euren auſez-auſe denari, kuku-egiſen diote. Eztakit iñork oarkarazi digun, bañon Lizardi'ren oleſki idaztiñoak izen zoragaſi du. "Biotz-Begietan". Estetika beſi baten laburpena. Onen mamia gozartu dezagun.

Oleſkari izateko oldozlari eztegu beaſ, ikusle edo begiratzale aski. Zeruan izanen geranean eztegu oldoztuko, so-egin, ikuskatu baizik. Begietatik barneratuko zaigu Jainkoaren edeſa, edeſ betea. Ulertzen ezteguna geureganatu nai degunean, oldozlari gaude. Eſexago begiz utsik aditzea.

Onetan oleſkari jayo denaren ezaugaſia. Eta Lizardi'ren begiak beti begiratzen, so-egiſen egoteko egiñak ziran. Umetxo baten begiakaz grezitaſak joaten ziran izadia ikuskatzera, Mendi baten eseri ta bake goxean egon egoten ziran. ¿Zertarako oldoztu? Begi-barnean guzia geratzen zitzayen eta ain besteko edertasunak ezi edo euki-eziñik bertso txukunetan irteten zizkioten kanpora. Bertso alayak, zeru garbipean sortuak baiziran Arek zuten musika onena, aizearen otsa, itxasoaren egon-eziña. Grezitaſen artean eztezu idoroko oleſkari negartirik, izadiaren begiratzale diranak, poztasunaren orioz igortziak daudelako. Neure baitan maiz-maiz ikusi det Lizardi, or Tolosa-ondoko mendiño goyeran. Bakaſik juanen zan, idazti-gabe, ingitxoa aldamenean. Zerua garbi-garbi zegoan, Aralar'ko galuſetaraño lañorik etzula. Uso zurien egalak dardaritzen zuten goi zabal ta urdiña. Txindoki, Uztufe, Orexa-tontoſak eskeſ-alde, Altzo-muño es kui-alde. Eta bake bete aren magalean non-nai oyartzunak ortzi-mugaraño. Lizardi'k etzun ezertxo ere oldoztutzen, bere begik zabalik zauden, ordea. ¡Gorputz aul arek nolako biozkada eta sistada sentiko zitun! Barne guzia samurtuko zitzayon eta ametsezko zorakertasunea izanen zan.

Maitale bat bezain meki, Lizardi izadiaganatzen zan. ¿Maitalek zer? Itzik egin-gabe luzaro-luzaro alkaſi begira daude. Begiakin mintzatzen dira, eta baſuko zorakortasunak bultz eragiſen dienean, dardariz begiak itxitzen diſuzte ezpañakin itz-egiſeko, laztan goxobatez.

Oleſkarik oſelaxe. Izadiaren maitez, txoratuta diran orduan, begiak itxitzen diſuzte ta bertso zoragaſiak euren arimatik agertzen dira. Oleſkariaren eta izadiaren semeak baitira bertsoak.

Lizardi gure oleſkariak izadia benetan maite zun! Arekin izketan egun baten esan nion: Adizkide, bide zabal oſez joan naiz eta zure gomuta izan det. Ortik ibilia zera ta zure oleſkiak talde oyen sunda dute. Berak neri: Alajañetan! Or sortu ziran bertso guziak. Bai, bertso onak, sortu diran alde guzien aztaſa izan bear, bestela buruz egiñak. Antziñako oleſkari ayek bezela. Italiaſ asko zen artzai-bizkera kantatzen zutenak, bañon axuri bat ñoiz ikusi-gabe. Lelo-xamaſ ziran ayen artzai gaxoak.

Agiſe'taſ Joseba Mirena, beste zan. Onen antzeko dan oleſkari ba Catalunya'n dute. Maragall. Begietatik bertsoak irtetzen zizkion areri ere. "Pirenenques" eta "Visions" egin ziſun aren neuſikoa Lizardi degu. Izadiaren gurtzale, gizon onik jayo bada, oneik onak ziran. Seme maitagaſiak egiſean ere oleſkari beain elertilariak.

Oroi diſut aren neurtitz oneik:

"Si 'el món és tan formós, Senyor, si (es mira
amb la pau vostra a dintre de l'ull nostre,
qué mes ens podeu dá en una altra vida?"

Berdin ots zigun gure onek ere:

Oi, zein dan iſuna
bera-beaſ au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!

Bizitzaren maitale ziran eta begiakaz guzia ikuskatzen zuten. Ezin gaua maite, eriotz-anaitzakoa delako! Oleſkari denak bere ikumena maite ta iguzki argiz bezain lutun begi urdiñak. Ikeraz irakuſi nun lenengoz Agiſe'ren idaztian diran bertso oek:

Biotz-Begietan satsizdate sortu
biotzeanaga batzuok; besteak
betsoin-betsoñetan... Biotz gabe ta itsu
nork, izan ere, bil olerti-loreak?....

Bertsolari asko ta oleſkari gitxi dira egunean, izadiatzaz aiztuta bizi diralako. An gure begiak asetuko ta idurimenak arkiko ditu iduri beſiak. "Mendi-gaña" deritxayo oleſki bati. Argi esaten digu zein maite zuan zelaya:

"Maite ditut galuſak
argiak ez beste...."

Mendietatik begiratzean arnas bat sentitzen du, ezilkortzen dun arnas mea. Izadia ikuskatzera juaten zanean Neskatx urdin jantzia, uste-ezik, arkitzen zun basoan. Eta liluraz beterik ari begira zegoan. Sagardiak ere loraz jantziſa, mitxileta iduri. ¡Zein den sakona neurtitz ura:

"Begi edeſ-zaleok
ase zakidate!"

Aren begiak edeſ-zaleak ziran iñoiz asetu eziñak. "Bultzi-leyotik" deritxayon ura ere oſelaxe sortua degu, Arto musker, baseſi zaſak, ale goſiz abailduta sagaſak. Baña oleſkari gizenen eta umoen agertu zitzaigun Lizardi "Urte giroak" deritxaen oleſkietan.

¿Eta zer ezaſi zizkioten izenpurutzat? "Urte giroak ene begian". Olerkariaren begietan sortu ziran bulko, iduripen eta arnas edeſenak. Bazun gogo-giaſa arek, izkuntza ere bai. Doi gurenak eman zizkion Jainkoak eta guziakin lau olerki entzuntetsuenak egin zizkigun. Iñungo elertietan ote-dira beste antzekorik? Keast'en Udagoyenari zoſik ez "Ondaſ-Goſi,,'k. Ud beſia abestu ezdutenik ezta, bañon gutxik Lizardi'k bezain me ta beſiki. "Baso Itzal" belaunik belaun ikasiko dute. Lizardi'ren biotza ta idurimena alkartuta zeuden une ortan.

(Daſaike).

ERRIJETATIK

ZESTONA

EUZKO-ETXEA'K BATZOKI BERIJA.—Beti begira, beti oldozten aspaldi ontari, beste antzoki aundiago bat non izango ote genduan eta gitxiena uste genduanean Goiko-Jaun altzuak, kistaſ on baten bitaſtez ipiñi du gure eskuetan etxe edeſ bat gurutz Deunaren Enparantzan.

Goiko-Jaunak onestia izan zaite Andere on ori, zugaitik otoitz egingo degu biotz biotzez abeſtzale gustiok, beñere astu ta ordaindu ezin leikean mesedea egin dezulako gurekin.

Andere on au degu emalerik aundienetakoa, berak egindako onak asko dira, baño edeſenetako bat izan da eſuki-etxea egitea, eſi guztiak diogun betiko zoſa.

Eskeſ len lenetakoak abeſtzale gustion aldetik Enbil'daſ Cleofe Anderea, Goiko-Jaunak lagun deizula zure egiñetan eta eman deizula gauza ugari bada zuk izan ezkero, zeartzuak izango dualako.

POXPOLIÑAK.—Gogoſ eta gogoſ ari dira bai jolas ta dantzak ikasten. Jaſaitu auſera ere orlaxe abaldu ditzaigun aztuta dauden euzkal oitura garbi ta politak.

Irakasliak ez aspertu lan oſetan, lan aundia artzen dezute baño egiten dezuten ona aundiagoa da ta auſera beti Jelalde. E. A.-B.

"Emakumeak" ere ari dira irule jantziak egiten, poxpoliñak apain-apain irten dezaten.

"Emakumeak" gaur egiten duan lana abeſiaren alde aundia da, auſera bada atsedenik gabe zuen eskuetan dago gure Abeſi Maitearen zoriona ta.

TXIRIBIRI.

LEZAMA

JAYOTZA.—Igazi dan astaſtian uguztzan dabe Jabier euzkel-ixen polit-polizaz geure lagun on eta abeſtzale gorengoak diran Argintxona'taſ Gotzon eta Olabaſia'taſ Paule'n semetxu jayopaſija.

Zorijonak guraso abeſtzale zintzo-zintzuboi eta jaſai olantxe lan egiſen egure abeſijaren aldez.

BATZAŔA.—Iragaſiſa eguan lez igande goxeko bederatzijetan ixan zan Uri-Buru'ko bazkiden batzaſa, eta batzaſ oſetan beste asmo txalogaſi akoren ondoren, urte onetako bazkintza baſija autu zan, ixanik eurok.

Lendakari, Argintxona'taſ Gotzon.
Txindi-zai, Laudio'taſ Jon.
Idazkari, Atxutegi'taſ Beſnaſtin.

ITZALDIJA.—Benetan ixan zan itzaldi edeſa igande aſtsaldijan geure batzokiko aretuban Biteri'taſ Bingen ospetsubak egin ebana, eta amaikatxu txalo entzun ebazan Biteri jaunak bere itzaldi ain edeſagaſik.

Ia lasteſ beste itzaldiren bat gertauten dogun.

NASKALDIJA.—Emen aguſtau doguz geure lagun onak diran Ugalde'taſ Joseba, Zugatzaba'taſ Jon eta Galartza'taſ Ixaka.

Zorijonak.

TXIŔI.

AB'D'ANO

AŔAYO DEMOÑIÑUA.—Emengo andrak bai-daukela suſa bixija; iñun diran gauzai uſindik usaña aſtuten dautse; ondo dago. Olakuak biaſ doguz oin abeſija gaizkatuteko. Noxian bein "merijenda" edeſak, be, bai. Lengo egunekoa etzan makala ixan. Baña poxpoliñai ixenak iminſia ezta egokija. ¿Bai-ete?

EUZKADI AZKATUTEKO. — Orain esan biaſ dodanau iñoz esateko gogua euki dot; orain baño epe oberik iñoiz, be, eztodala eukiko oraintxe esango dautzubet. Abeſija azkatuteko abeſijaren gauzak zaindu ta gorde biaſ doguz, ta ez ori bakaſik abeſtzalieı lagundu, be, bai. ¿Zigaſuak biaſ dozuz? Abeſtzaliai erosi egiiozuz. ¿Seluak biaſ dozuz? Abeſtzaliai eskatu egijozuz. ¿Bixaſa edo ulia ebagi biaſ dozu? Abeſtzalien etxian egixu. ¿Akeſa edo kaſia aſtu biaſ dozula? Abeſtzalienean aſtuxu. Ostera etzara egizko abeſtzalia. Abeſtzalia, lagundu abeſtzalia.

"LAUAXETA".—Bijaſ aſatsaldian batzokijan ixango dogu "Lauaxeta" ospetsubaren itzaldija. Erdu inguruko gustijoik izlarija entzuten.

EŃIFEA.—Bildots eſifea ixango da domeka aſatsa'dian itzaldi ostian: aſtu txantelak.

KIŔU.

ARRONA

ASTEKO IZPAŔAK.—Sagardozaleak egunero aſatsaldetan biltzen dira, Kantxil'en upeltegian.

Bire beſiaſen lanen asiera, aste onetan izango dala entzun degu. Lan egin nai duanarentzako ez da gaizki etoſiko, bire zuzentze ori.

—Miren Arantzazu euzkal-izen politarekin ugutzatua izan da, Azketa-basaſiko aurtxo jayo beſiya.

—Oso sendatua arkitzen da, Teleindegiko Bernardine, etxeko--andre ona.

—Aizarna'ko mixiotara emengo asko batu zan Elizan.

—Andre Miren neketsuaren bederatziuſena, atzo goizeko seiretako mezarekin asi zan gure eleizan.

—Endoyataſak aurki izango dute beren etxietan tximist argia.

IZPARKARI.

ELGOIBAR

IZPAŔ BALTZA.—Jaunaren besoetan il da 56 uſte zituala Juaristi'taſ Eustake (Goyan bego). Laguntzen diegu atsekabian seme-alaba tamaltsuberi.

EIBAŔ'ERA.—Gaſ aundia dago uri onetan gauſ larunbatez eta biaſ igandez "Iru Gudari" eta "Aizteak" antzeſki edeſak ikusteko Astelena pelota-tokian Bilbao'ko Euzko-Gastedi'kuak, botata.

USURBIL'ERA. — Gure antzezlariak biaſ igande aſatsaldian Usuſbil'era juango dira beſtako abeſtzale anayeri aſatsalde atsengingaſi bat igarotzera. "Mendibetaſen-Laſiak" eta "Gizon-Bikañak" antzestuko diſuzte eta gañera abesti edeſak eta oleſki edo beſtsoak ere bai. Ongi ibili ba mutilak eta zuek usurbiltaſ anayak besoak zabalik aſtu.

MENDARO'RA.—Mendaro'ko abeſtzaliak ere biaſ igande aſatsalderako antolatu dute benetako itzaldi-abeſkoyak. Beſtan itzegingo dute Uſzelai'taſ Julene andereak eta Biteri'taſ Bingen eta Etxebeſia'taſ Eli, irurak euzkeraz. Ainbat abeſtzale (J. L.) izango gera gauſ beſtan. Itzaldia Azpilguetan izango da.

BATZOŔDE BEŃIA. — Uri onetako "mendigoizale" taldiak auſerako batzoſde beſi au autu du: Lendakari. Aranbeſi'taſ Andoni.

Idazkari, Unzueta'taſ Elaxar.
Diruzai, Eizagiſe'taſ Peli.

BEDERATZIUŔENA. — Ostegunez asiera eman dio Ama Nekatua'ren bederatziuſenari txadon nagusian ozte asko beſtaraturik.

AIXERIXA.

ARRANKUDIAGA

Eſi onetako alderdikideai dei egiſen yake datoſen larunbatan gabeko 7'terdijetan Batzokian egingo dan batzaſera.

Euzko-Erri-Jakintza

Bertzo zarrak

Nobedade andijak
guziz beſi onak,
zerutik ekaſijak
Jaungoiko gixonak;
Trinidade santuko
bigaſen personak,
zeru eta luſeko
Eſege ta Jaunak.

Adan eta Eba ziran
zorijonekuak,
egin zitubanian
gure Jaungoikuak;
ayek ziran lenengo
gure gurasuak
jatoſizko gaitzaren
kutsu gabekoak.

Adan lendabiziko
gure gurasoa,
Jaunak luſ puska bataz
egiñetakua;
gañera eman zion
ditxasko lekua,
an adoratu zezan
bere Jaungoikua.

Leku miſagarija
zan paradisua,
fruta gozo ta lorez
txik ingurutua;
arbola baten fruta
zan debekatua,
zeren zedukan Jaunak
beretzat autua.

Etsai gaiztuak zuan
Eba asakatu,
arbola aren fruta
zezala probatu;
apenaz bokadu bat
zuan auan sartu,
ordutikan ziraden
gure gaitzak sortu.

Ebak eragiſ zion
Adani pekatu,
munduaren galera
andik zan gertatu;
Jaunak istante ortan
zion kargu a-tu,
¡Adan! ¿nere aginduaz
nola zera aztu.

Adanen pekatuak
galdurikan grazija,
andikan etoſi zan
gure gaitz gustija;
ezin andijagoa
ixan desgrazija,
ordutik gelditu zan
zerua itxija.

Baña ezenduan nai
gixona galtzia,
Jaungoiko soberano
gustijon jabea;
Antxiña-antxiñatikan
zedukan gordea,
gure anparatzale
Birgiña, Ama-Andrea.

Maria birgiñaren
eſai garbijetan,
Jainkoaren semia
aragiz jantzi zan;
Espiritu santua
zerutik jetxi zan
salbatzeko bidia
andik iriki zan.

Jose eta Maria
senar-emaztiak,
ditxa ta zorijonez
zaudete betiak;
Biŕkiña Ama'gandik
Jesus jayotzeak,
ark zabaldu zizkigun
zeruko atiak.

Antxiñatik zeukaten
profetak esana,
nola etoſiko zan
aurtxo bat gugana;
au zan bada Belen'en
gabaz jayo zana,
gu zalbatziagatik
gixon egin zana.

Mirari gustijetan
danik andijena,
zan Jesus'ek gugaſik
an egin zuena;
zerutik jetxitzea
luſera gugana,
au zan amodijuak
eragin ziona.

Zeru eta luſaren
egilia dana,
amodijuak dakar
mundura gugana;
goazen bada guziok
lasteſ Beragana,
adoratu dezagun
gure Jesus ona.

Aditzera emanik
aingeru justuak,
juan ziran Belenera
artzain mendikoak;
ayek ixan ziraden
zorijonekuak
Jesus adoratzeko
lendabizikoak.

Uſena eſegeak
eguzki aldetikan,
juan ziraden Belenera
txit uſutiſikan;
Jesus adoratzera
bijotz gustiſikan,
zeruko ixar batek
argi egiñikan.

Iru Eſege ziran
Belenera etoſi,
oprenda txit andijak
zituzten ekaſi;
Intzentsua ta miſa
uſea ugeri,
eskaintzian ziraden
belauniko jaſi.

Belengo mendiſikan
artzaltxo pobreak,
eguzki aldetikan
beſiz eſegeak;
ayek ziran lenengo
bixitatzaliak,
ixandu zituanak
guzion jabeak.

Oſa zer gertaerak
Jesus'en jayotzan
gurekin bixitzera
zerutik jetxi zan;
eta erakustera
nola bixi ixan,
gu zalbatziagatik
gurutzian il zan.

Orain kanta dezagun
gustijok batean,
nola para genduzan
Jesus'ek pakean,
Bera gelditzen zala
gixonen artian,
bixilekua arturik
ostia batean.

Esan dedan bezela
lenengo bertsoan,
oſa eman beſi onak
al-dedan moduan;
bixi gaſezan bada
gero goza dezagun
glorija zeruan.

Bertzo onek, emeko atso bateri entzunikuak dira.

MAÑARIKO.

BIOTZ-BEGIETAN

Libro de poesías
con traducción castellana

Xabier de Lizardi
(Prólogo de «Orixe»)

La conferencia de los agentes comerciales

Se confirma la celebración en el día de hoy, y como dimos a conocer, en el salón de actos del hotel Carlton, de la conferencia que desarrollará el letrado don Luis Valeri.

Versará la disertación sobre el tema: "La sindicación voluntaria y la colegiación obligatoria".

Los colegiados podrán asistir con la simple presentación de sus carnets, y otras personas interesadas en escuchar cuestiones de tan general interés y orador tan eminente precisarán la presentación de invitación al efecto.

Lapurrak azke...

Lapuſak azke dabiltz, eſtzañak biaſekuak ei-dira, ba, abeſtzaliak espetxeratuteko. Biaſtian geure adizkide diran lapuſok euren baſabaskerijak egin daroez. Eguneroko lapuſketeak entzuten doguz.

Lenago etxietara saſtuten ziran, baña orain etxietan dirurik eztagolako-edo, txindegijetara duaz. Ondo egiña, bein ostuterakuan dagon tokijan ostu. Basauri'ko Bizkaya-txindegijari eldu yako zorija. Eta zelan gero, Ipaſ-America'n bere ezta baſdiñik ixaten.

Bilbao'ko Plaza Circular deritxon txaide-utsunean ikusiko zenduzan belbila, ¿ezta? Ttaxis edo dana dalako batzuk antxe egoten dira. Iñor juaten yakenian, pozik eruaten dabe eruan, sarijaren gosez Atzo goxian gaste bi uſeratu yakozan bilbildar bati. ¿Eruango gozuz? ¡Bai pozik! Tira, ba saſtu yatzuz gura moſosko bijak eta juan dira Kastrexana'runtz. Pot-pot belbil dotoria. Olako baten bitxabal-ziar Gueñez aldera eldu dira.

Belbildari gaxuari, ostera, esan dautse: Ezaſugu biaſ ezetarako ta geratu zadi ementxe. Baña berez eztau gura ixan eta indaſez geratu-eragin dautse. Eskubak eta iztaſak, ondo-ondo lokaſijaz lotu ta bide-eſtzean itxi dabe. Oſurik egin ezegijantzat, abua bere, saſatu dautse.

Gero gaste areſako bat jaſi da belbil-auſian eta pot-pot Bilbao'ratu dira. Kastrexana-goyan beste irugaſen bat saſtu da. Irurok txaidez-txaide eguraztuten legetxe ibili-ostian Miraflores'etik gora, Basauri'ratu dira. ¿Zelako asmuakaz?

Basauri-onduan laugaſen bat batu yake. Oſa-oſ lau gixon, lapuſketa edeſena egiteko prest. Itxi belbila bide-eſtzan eta Bizkaya-txindegiko areto nagusira saſtu dira. Egun on esan barik, seguru bere.

Egun on esateko asitirik ezeuken-eta, azketsi biaſ yake, batekuakaſik ezpada, be. "Gora eskubak" ost egin dabe. Eta an ziran artezkari eta beste ogipeko batek, lasteſ eskubok jaso dabez. Bixitzea galtzeko bilduſ-edo. Saſegi jauna eta Boveda ziran.

Azikera onagaz ezeutsoen iſaunduko, baña iſaundu dautse diruba nun dan. Eta su-izkilubak eskubetan ebezela atrapau dabez beſogeta bost mila lauſlekotik gora.

Ikera txikeſa ez eben eukiko geure gixonok. Onetan iru gixon saſtu ziran txindegijan, euren auſeratubak saſtuteko asmoz-edo. Oneik be, ixil-ixil lotuta irol batera eruan dabez. Zidaſa eguan kutxa zabaldu-aſen, ez eben ezer eruan. ¿Zama andijegija dauko-ta!

Gero aguſ maſekiro egin geure txindegikuai ta Bilbao'runtz zuzendu dira. Miraflores - aldetik eziran geldiro etoſiko. Fika-txaidian belbila agertu da eta belbildari gaxua Gueñez'en. Ori dok ori, lapuſketa on bat egiſia. Eſtzañak lotan-edo dagoz eta jauſlari jaunak ostera egunero dirausku: están tomadas todas las medidas". Bai lapuſak aſtu dabez euren "medidas" eta bat be eztabe atxilotuten.

¡Amaikatxu ikusteko ba-gara!

Euzkel - Goldaketetan

Lagun euzkaltzale batenean izan-beſi nazu.

Geyago esateke ere, gu bion jorduna zertzaz zan genduan asmatu al-izango didazu. Euzkaltzaleok izan ere, euzkera diſugu amesgai, euzkera jardungai: gure ele zar oni gaſtuzu buru ta biotz.

Oraingoan ala baña, ustegabeko gauza gertatu zait nere lagunarenean. Sartu orduko eraso dit:

—¿Ikusten orko lotura ori?

—Bai, erantzun diot, ¿zer dituk baña?

—Argitaldu gabeko Lizardi'ren lanak.

—Eztek egia izango.

—Oraintxe askatuko diagu ikusteko.

Euzkaltzalea ba-zaitut, eztezu nik esan beaſik orduko nere ikusmiña. Ura zan idaz-lan guren ayek begiztatzeko azkura!

Zabaldu genduan alako batean estalkia eta nere begi goseak ase ziran apurtxo bat euzkal-lan gozoz. An Lizardi'ren eskutitz egokiak, an oleſki bikañak, an bukatu gabeko edestizuna (novela), an beste zerbait idazkai ikasgaſi. Ta ez nola nai nastuta, oso txukun baizik.

Oſi ayek banan banan banan sakon aztertzen pozik asko egon ziteken, baña astirik ez nizun.

Alako egiteko gozorik, gutxi euzkaltzaliok, baña aldegiteko ordua etoſi ta utzi egin beaſ ingi maite ayek lagunarenean. Esku oneta gelditu zaizkigu ala ere, aitatutako euzkal lanok eta J. L., eztira eskutu gelditukо Lizardi'ren idazkai azalgaſiak.

卐 卐 卐

Neri burua beſiro berotu zait euzkera edertuta ikusteko miñez. Beſiro zurekin egon-naya sortu zait irakuſle. Gustion artean euzkereari biderik zabaldu al-ba'genioke, orixe poz.

Asi gaitezen bada bide-baztaſak garbitzen, eragozpenak kentzen.

Esatekoak ugari ba-dizut gogoan, baña aleka ixuri bearko nere gogapenak. Joan dan astean agertu nizun lenengo eragozpena. Euzkal-idazliok, alegia, laſegi bildurtzen gerala, erderakadaren bat sortuko ete-zaigun ustegabean ta bilduſ oſek gure lanetatik atzeratu egiſen gaituala.

Beste eragozpenik ere ba-degu ta nagusenatakoiſ bat alako geure arteko asaſe ta eztabaida ningaſiak. Onetan Lizardi oso mutila zenduan. Euzkal gaiz ari ziranak iñoiz asaſeko asten ba-ziran, bereala azaltzen zan gure Joseba Mirena pakeak egiteko.

Oraindik eztezu garai asko, eſez-zaleak eta Lizardi zaleak izan zuten eztabaida, sortu zala.

Alkaſ zirikatzen asi ziranean, Lizardi'k oso egoki ebagi zuan mintzen asita zeudenen jarduketa laſegia.

Biderik asko diſuzu izan ere elea, jasotzeko: ta zuk uste ez aſen, beste bideren bat sortu diteke euzkereari auſerakada gogoſa eragiteko.

Mutiltzen ari zaigu zorionez gure izkuntza: ez dezayogun galerarik ipiñi bere azte oni.

Etzaite asaſetu besteren batek zuk uste dezun bidea utzi ta beste aldetik jotzen ba-du. Asaſe oſek askori lan-egiteko gogoa kendu dezayeke, ta ori gure izkuntzaren kalte izango zaigu.

Nik ere maiteago dizut Lizardi'k zazaldu-bidea, eſez-zaliena baño. Ez uste ordea nere obeste onek eſez zaleak eſesteko gogorik ekartzen didanik. Ba diſuzte eſez zaleak ere beren alderdi onak.

Eſez idazteak, alegin eſiak euzkera irakurtzeko oitura artu dezan, asko laguntzen duala ta abar. Ala ere neri poz geyago zait euzkerari sail beſiak zabaltzen ikustea: len aitatzen etziran gayak, euzkeraz norbaitek egoki azaltzea, orixe dizut nere bazkariſik gozoena.

Eutsi dezayogun bada geure arteko anaitasunari ta zabaldu euzkal-idazle gustiei aldizkingi ta izpiringietako oſiak. Azkenik, biderik onena artzen duana nagusituko da.

Betorkigu lenbailen gustiok Irakasle bakartzat aukeratzeko idazle gurena. Bitartean dijoa bakoitza bere bidez.

ARTIZ'TAŔ JABIER.

Deunen bixitz

Uga deuna, Gotzaña

France'n, Valence goteſkiko Chateaneuf eſijan jayo zan, 1053'gaſen urtian, guraso aundiki ta kistaſ zintzubakandik.

Uga onbidetsuba ta jakintzalia ixan zan umetatik. Gastarua, France'n eta atzeſijan ikasi-ta-ikasi igazi yakon, bitaſtian bere gogua onoiſenez apainduten ebala.

Ikastaldiia amaſutakuan, Valence'ra itxuli zan, eta goteſtxauneko jaupaldijaſ (kanonigo) autu eben.

Lasteſ, baña, Die'ko gotzañak beregana eruan eban. Gotzain ori VII Gergori Doipurubaren ordezkarija zan-eta, ordezkari-egikixunak betetako, ezeban laguntza makala ixan Uga gastiagan.

1080'gaſenian Avignon'era eruan eban berekin goteſki-batzaſera. Batzaſ-biſaſtian, Grenoble'tik eske etoſi yakozan Doipuru-ordezkarijari, gotzañik ezebela-ta, Uga ango gotzain egiteko, aſen.

Uga apalak ezetara, be, ezeban gotzain ixan gura. Aren mukeſtasuna goſuteko, gogoſ-egin biaſa ixan eban Doipuru-ordezkarijak. Geruago Roma'ra eruan eban berekin, eta antxe gotzaindu eban VII Gergori Doipurubak.

Roma'n, ganera, Doipurubaren onubak Uga'ren gogora baretasuna eratoſi eben; eta Matilde labume (kondesa) ospatsubak bezuza edeſak egin autsozan.

Uga gotzain baſija Grenoble'ra etoſi zanian, ango ekandu gaiztuak eta biguſikerijak ikusirik, ikaratuta lotu zan. Jauparijak, be, ekandu zantaſez lotuta agiri ziran.

Gotzain deunak gora jo eban lenen laguntza-eske, zuzenbidia Jaunagandik batez be etoſi biaſ zala-ta. Otoika ta bere gorputza ilduratuten iñozko gogotsuben ekin eutsan; eta goteſkiko txadon (elexa) gustijetan otoi ta aſen egiteko agindu eban.

Uſengo bere ardurarik andijena, jauparijak onbideratu ta jauntzaletuteko ixan zan. Arlo oſen gaſantzi aundija ondo ekijan-eta, etenbaga ta buru-belaſi ekin eutson.

Bestelako kistaſen ekandu okeſak zuzentzen, be, alegiñak-alegin egiſen ebazan. Bere bixikera dontsuba gustijentzako eredu bikaña zan.

Goiko Jaunaren laguntzea ta Uga'ren atazea zirala bide, ekandubak onduz joyazan: eta urte-bi-buru goteſkijak lengo antzik be ezeban.

Orduban, bere gogua deunduten iñarlun biaſa ebala-ta, gotzaintzea laga, ta Auvergneſko Chaise-Dieu eretxon lekaidetxera jun zan, eta bediſaſen janzkija aſtu eban.

Urtebetegaſenian, baſiz, Doipurubak atzera lengo gotzaintzara itxultzeko agindu eutson.

Baſiro, be, lenago baxen gogotsu ekin eutsan gogo-aldezko lanari. 1084'gaſen urtian Uga deunak pozoſ aundija nabaau eban. Urte oſetan Burna ta bere sei lagun, Goiko Jaunak bijotz-ikuturik, gustiz onbideratu ziran; eta Uga gotzañari auſkeztu yakozan, basamaurtuban donekiro bixi nai zirala-ta.

Gotzañak pozaſen aſtu, ta Chartreuse deretxon bakaſtegira eruan ebazan. Aſezkero, Uga gotzaña Burna deunaren eta bere seme kartustaſen adizkide aundija ixan zan; eta al ebanian bertara jun eta eurek lez bixi ixatia atsegin eban.

Uga deunak Doipurubaren eskubidiak, be, bilduſ-baga aldeztu ebazan. 1106'gaſen urtian, V Endika, Dotxeſi"ko kesarak II Paskal Doipuruba atxilotu ebanian, Uga'k beste gotzain asko batzaldu, ta kesara axatu (doibazkatu) egin eben.

Geruago, II Iñoskentzi Doipurubaren aldez, ta France'ko gotzain batzuk autu eben Anakelda sasi-doipuru-atxin, jagi zan.

Uga gotzañaren donetasuna bere menpeko kistaſai eredu bikaña yaken. Eratsu-eratsuba zan. Begijak, batez be, arduraz jaboten ebazan-eta, 52 urtetan gotzain-lanetan iñardunaſen emakumeſik ez ei-eban aſpegiz ezagun.

Jaungoikua'k gexotasun eta gogo-atsebage laſiiak bidaldu eutsozan. Urdaleko ta buruko min aundijak jasan ebazan beſogei urtetan. Txeſenak, baſiz, etenbaga ta gogoſ ziltzetan eban.

Nozpait, bere gexotasuna laſijagotu egin yakola-ta, gotzaintzea iztia jadetsi eban II Iñoskentzi Doipurubagandik.

Lasteſ eldu yakon betiko sarija aſtzeko eguna: 1132'gaſeneko joſalaren 1'gn. il zan, larogei urte eginda.

Bere gorpuba guſtetan aufez erdu zirian-eta, bost egunetan egon zan agirijan, ustel-atsik baga. Goiko Jaunak, baſiz, Uga'ren deundasuna alatz ugariz iragaſirik, urte-bi-buru II Iñoskentzi'k deuntzat emon eban.

Léase EUZKADI